



Jean
Barbier

1875-1931

BIDeGILEAK

Egilea:

Henri Duhau



JEAN
BARBIER

(1875-1931)

Gure Herria itsutuki maite zuen gizona

EUSKAL IDAZLE HANDIENETARIK BAT...

Lotsa handi batek leherturik nauka Jean Barbier zenaz idazten hasi behar dudan honetan. Halako apeza lehenik: girstinotasunean oinarritzen baita haren obra guzia! Halako idazlea gero: Atsular (Axular) bera baino gorago ezartzen baitzuen Piarres Lafittek, hiltzearen inguruko urratsak hain ederki aipatzeagatik! (Ikus *Piarres II* eleberrian, *Gaxuxa, etxeko andrearen hiltzea*). Halako poeta bertzalde: kantu eta kantika ederrenen egilea! Eta guzien gainerat halako herri maitalea...

Eiki, errana da Frantzia maite zuela. Guk berriz, goraki diogu Euskal Herria maiteago zuela eta hori ikusiko dukezue haren bizia eta haren lanak irakurri arau...

Jean Barbier Donibane Garazin sortua zen 1875eko uztailaren 9an. Aita, Jean Barbier, izen berekoa beraz hura ere, egur edo zur torneatzailea zen kadiren egiteko. Ama, Jeanne Officialdeguy. Aitaren arbasoak Irisarritik etorriak ziren. Officialdeguy-tarrak berriz Mendibetik jalgiak.

Donibane Garazi, denbora haietan, orain baino biziki euskaldunagoa zatekeen.



1903. Donibane Garaziko zubi famatua; garraioa mandoz!

Sortetxean segurik, Jean ttikiak, euskarekin batean, ikasi zituen zernahi lekuko kantu eta ixtorio, ondoko urteetan ederki landuko dituenen oinarri izanen zaizkionak.

Gazterik hauteman zukeen bere baitan apezteko deia. Donibane Garazin hasi ikasketak bururatu zituen Hazparnen, Larresoron eta Baionako apezgaitegian. Hartze ona baitzuen alde bate-tik, eta laneko gogo handia bertzetik,

ikasle hoberenen lerroan argitzen zuen. Eginbidezko sailetarik kanpo, bere gus-tukoetarat lerra zitekeen beraz makurrik gabe; hain xuxen, euskal kulturari ziz-tzaion errotik atxikia eta jadanik ari zen euskal kantu eta ipuin biltzen, bai eta bertso berri ontzen.

Orduko zoingehiagoketan sari andana bat irabazi zuen. Bertzeak bertze, «Lore jokoak» deitu lehiaketa famatuetan (1853 eta 1914 artean) lehen saria irabazi zuen,

Saran, 1897an, *Itsasoko arrantzalea* deitu kantuarekin. Ondoko urtean, Senperen, lehen saria berriz ere, *Irrintzina bat mendian* deitu bertsoekin!

Hogei urtetan izkiriatu zuen *Antxitxarburuko buhamien ixtorioa* euskaraz eta erdaraz eleberri bat, *Le roi des bohémiens d'Antchitcharburu*. Erdarazko hau zer bilakatu den ezin izan dugu jakin; euskarazkoa, haatik, argitaratua izan da Piarres Lafitteri esker 1970ean *Gure Herria*-n.


1898an apezte-eta, Jaun apezpikuak Frantziako Tolosarat igorri zuen teologia sakontzeko, eta, bi urteren buruko, doktore tituluarekin itzuli zen denborarik galdu gabe...

Berehala irakasle izendatzen dute Larresororat. Hurrekilakoa lau lorietan badarama, bakoitzaz arta hartzen duela ezin hobeki. Gazteak, ordainez, arras atxikiak zaizkio. Lanarteetan bere euskara aberasten ari da Jean Hiriart-Urruty (1859-1915) kazetari aipatuarekin, eta musika lantzen Hiriart-Makola kantika xahar biltzailearekin.

Duhau-Arana




xx. mende hastapena. Donibane Garaziko karrika ezagun bat eta eliza behean



Ezkerretik eskuinerat: Gratien Adema Zaldubi senpertarra (1828-1907); erdian Jean Barbier (1875-1931) eta Aita Agustin Bastres (Jean Leon Bastres, 1832-1904) senpertarra, Belokeko beneditar etxearen sortzaile eta lehenbiziko aita abadea (marrazkia: Paxkal Bourgoïn)



1908an herriko eskolako haurrak, Herriko Etxe aitzinean.
Eskola laikoa hedatu zen XIX. mendean eta XX.aren hastapenean



Baionako Katedrala. Jean Barbier hor egon zen bikario
Senpereko erretore izendatua izan aitzin (1905-1913)

1905ean, izendatzen dute Baionako katedralerat apezlagun. Hiri horretan: apez mintza errexa egiten dute, jende xeheari eta behardunei emana. Ez doa halere handi-mandiei ihes: hauek, egia erran, estimatzen dute haren jakitatea bai eta goersten haren jendetasuna.

Orotaz grinatua, nehon ez dagoke, parropiako lan guzietarat beti prest, kazetari lana ere segitzen duelarik, olerkari eta euskaltzale bertzalde, sariketa zenbaite-



1913ko Bestaberri. Barbier-k sortu zuen Emak Hor parropiako elkarte garrantzitsua, anitz lan egin duena geroztik teatro, pilota, zinema eta bertze. Gaur abesbatza eta musika alorrean jokatzeko da gehienki

tan parte hartuz ezin ohorezkiago! Baina jadanik, bere bizi guzian iraunen dioten buruko min izigarriak hasten zaizkio...


1913an Barbier apezka Senpereko erretore ezartzen dute. Senpere ez zen nolanahiko parropia, baina *Lapurdiko hautuenetarik bat* Lafittek dioenaz. Ez zen haatik parropia ezti eta goxo-goxoenetarik: *xuri* eta *gorrien* arteko lehiaketek sumindua baitzeukaten geroxago berriz erranen dugun bezala.

Halere gure Barbier atseginekin sartu zen bere parropia berrian; amodioz mai-

tatu zuen, beti eta ederrago egin nahi izan zuen, erran nahi baita giristinoago. Ez zuen nahi jendeen fedea sendimendu huts izan zedin; ez zituen bere parropian-tak *berotu* nahi bakarrik, baina *argitu*.

Katiximak, eskola libroak bezala, gain-gainetik sustatu zituen, berak ere arta hartzen zuela, artetan euskara pitta bat ere irakasten zuelarik.

Predikuetan ere bazuen sineste, eta bera ari zen igandetan Ebanjelio sailduaren erakaspak argitzen xeheki, kartsuki, hunkigarriki eta zenbait aldiz... luzeki.



1930-07-10. Ezkerretik eskuinerat, xutik: Istillart, Goyeneche medikua, Paris, Miguel d'Arcangues, Dominique Dufau Senpereko auzapeza, Pierre Duhour, A.Larrieu, Othacehe, Olhagaray, Piarres Lafitte, Jean Barbier Senpereko erretorea. Jarririk: Dirassar, Elissalde «Zerbitzari», Constantin medikua, Jean Saint-Pierre Eskualduna-ren zuzendari zelarik apezpiku izendatua, Souberbielle, eta Fagalde

Dena den, Barbier jaun erretorea eliza gizon ederra zen, elizkizun ospetsuak laketzituena, otoitzez orhatuak, kantu bihotz altxagarritz apainduak.

Honela dio bururatzean Piarres Lafittek: «Bai, Barbier jauna, errotik apeza zen. Eta uste dugu zinez, ez zituela euskara eta euskal ohiturak hain artoski landuko eta sustatuko, ez balitzaio iruditu euskaldungoa bere eliza lanetarik bat zela, fedearen eta herriaren sustengu».

Zorigaitzez ez zen zahartu. Ez omen zuen orenik ez jateko, ez lo egiteko. Beti alha zituena buruko min saminak eztitu beharrez, medikuen baimenik gabe, beti erremedio berri bila ari omen zen, osasuna hondatuz azkenean. Horrela, gure *apez saindu bikaina* —beti Lafitten hitzetan— goizegi itzali zen 56 urtetan, 1931ko urriaren azken egunean, Omiasaindu bezperan.

Haren ehorzketetarat mundu bat bildu zen, euskaldun idazle handienetarik bat

Tritta Bastid



xx. mende hastapena. III. Errepublika darion Senpereko Herriko Etxea; eskuinean apezetxea eta jendea metatua abere merkaturako

Tritta Bastid



xx. mende hastapena. Senpereko Herriko Etxearen aitzinean jendea metatu da abere merkaturako

Tritta Bastid



xx. mende hastapena. Merkatu egunetan emazteek ere bazuten beren xoko berezia, zuhaitz pean!



1913an eskolen arteko zeingehiagoka irakitan zelarik, Barbier —Euskal Herriko apezik kapableenatarik bat— ezarri zuten Senpereko erretore eta eskola giristinoen indartzea lortu zuen, 1920ko argazki huntan ikus daitekeen bezala

agurtzeko. Orduko apezpikuak berak ere haxe adierazi zuen ofizialki: «Apez bikain bat galtzen dugu. Nehork ez du hark baino gehiago maitatu eta hobeki zerbitzatu bere parropia. Jainkoak anitz dohain desberdin emanak zizkion eta nor-

tasun aberats horrek erlijioa ohoratzen eta ene gaurko dolumina handiagotzen du».

Erran dezakegu naski, Atsularrentzat Sara izan bazen, Barbierentzat Senpere izan dela...



1922. Bestaberriko prozesioa Senperen. Leiho guzietarik mihise xuriak dilingan. Lurrean ihia eta ihiairen gainean oihal xuri luze bat Sakramendu Saindua daraman apezta hortik ibiliko baita



Senpere herria, airetik, duela 20 bat urte. Etxe zahar eta berriz osatua, eliza gotor baten inguruan, apezetxea eta Herriko Etxea ere hor berean direlarik. Zinezko bidegurutzea! Hortik, alde guzietarako bideak



1922. Bestaberri Senperen. Ezkerrean Jean Baptiste Donetch bikarioa (1884-1961); Jean Barbier erretorea (1875-1931); Dominique Dufau auzapeza (1880-1956) eta Christophe Dufau medikua (1888-1922)



Barbieren euskal lanak

1931. *Légendes Basques*: Jean Barbier-
Illustrations: P. Tillac. «Laminak Utsaleko
zubian» gaur askok «Musumigeleneko
zubia» deitzen dutena

Barbier jaunak lan anitz egin du euskaraz. Zenbait bere izen-deiturekin agertu ditu; bertzeak izenorde haueztaz sinaturik: *Nebor*, *Orduan gazte*, *Haurmaite*, *J.B.* eta azkenik *M.A.B.* Piarres Lafitte jakintsuak bertze sinadura bat ere aipatzen du bere lanetan: *Ganix*; baina gure bilakuntzen arabera izenorde hau ez da Barbierena baina Dominique Dufau Senpereko notario eta auzapez euskaltzalearena. (Ikus *Dufau bi Anaiak* liburuan, *Elkar*, 2007).

Baxenabartar hutsa izanagatik, Lapurdin bizitzearekin euskara lerratu zitzaion, bertze anitzi bezala, *nafar-lapurtera* dei-

tzen dugun hizkuntzarat den gutieneko urrikirik gabe, pentsatuz horrela ez zitzaiola euskara aberatsago baizik ateratzen. Bere gisako euskara batu bat egin zuen beraz hark ere.

Eskualduna astekarian eta *Gure Herria* aldizkarian agertu dira haren lan gehienak, nahiz lan haietarik andana bat gero liburutan bildu dituen berak, ez zitezen barreiaturik egon, galtzeko arriskuan.

1910ean, oraino bikario zelarik, *Nere kantuak* izenaren pean liburuxka bat argitaratu zuen, orduko bere hamabi kantu

hoberenekin. Hor daude hain ezagutuak diren *Amazo*, *Irrintzina*, *Galerna mendian*, *Garazin gaindi*, *Kristo Erregeri*...

Gero, hamar urtez, ez du kasik deus ere agertzen, salbu zenbait kantu 1914ko gerlari buruz. Baina ez dago alfer, ari da ipuin eta kantu xaharrak bil eta bil... Xehetasunak metatzen ditu bere herritarren bizimolde eta ohiturei buruz.


1920an liburu bat argitarat ematen du, *Ama Birjina Lurden*, Prouvost apezaren lan baten itzulpena eginik.

1921ean, lagun batzuekin, sortzen du *Gure Herria* deitu aldizkaria, eta hor isuriko du bere jakitate gehiena bospasei urtez...

1926an *Supazter xokoan* liburu ederra ateratzen da. Badauzka bi dozena elezatar edo ipuin, bortz antzerki eta kantu bat. Omore onezko obra zinez!

1929ean *Ixtorio-Mixterio*, euskaraz hori ere baina frantses itzulpena parrean, kasik hitzez hitz.

1931an *Légendes du Pays Basque*, frantsesez, baina bigarren parte batean ipuin edo elezatar guztiak euskaraz ere ematen



Ama Birjina Lurden. Prouvost apezak egin lanaren itzulpena


nik. Bilduma baliosa, puntu askotan Barandiaran handiaren ikerketak osatzen dituen; munta handiko obra, folklorea edo herri jakintza den bezainbatean.

1926an agertu zen *Piarres* eleberri luzearen lehen partea; bigarren liburukia 1929an plazaratuko du. Aipatzen digun *Piarres* gizon gisakoa segi dezakegu urratsez urrats bai Senpereko bizimolde guzietan, bai eta 1914ko gerla lekuetan ere. Hizkuntza, etnologia eta herriko historia, lantzeko ere balia daitekeen lan handi bat burutu du hor Jean Barbier-k.



Piarres Jean Barbieren eleberri famatua, 520 orrialde, bi liburukitan argitaratua: lehen partea 1926an eta bigarrena 1929an

Bertzalde, zazpi antzerkilaran jalgi dira haren eskutik: *Kauserak eta kruxpetak*, *Gauden Eskualdun*, *Zubietako debrua*, *Xilintxa sorgina*, *Ezkila xarmatua*, *Sorginak*, eta *Haurrik ez*. Abusamendu errexek arrakasta gaitza zuten denboretan gaude lan horiekin. Gainerat badakigu, berak ere biziki maite zuela irria eta irri eginaraztea!



1929. *Ixtorio Mixterio* liburuaren eskaintza Jeanne Marie Zubiriari: «J.M.Z. Ongi zurea duzu zuk ere. J.Barbier 19 avril 1929.»

1929. *Ixtorio Mixterio* liburuaren estalia

Barbier, Christophe Dufau jaunarekin ari izan zen luzaz euskal kantu xaharrak biltzen eta *Gure Herria*-n publikatzen, hitz eta musika. 120 bat bederen bildurik, Aita Donostia eta Azkueren itsasorat isurrazizuten beren ibaitxoak. Hain xuxen Barbieren lan horiek Senpereko «Oxtikenekoak» elkartekoek eskuratuak dituzte berriki eta guzien berriz argitaratzekotan dira.

Baina Barbier ez zen, haatik, bakarrik bertso biltzaile; bera ere ari zen bertso ontzen. Haren kantu eta kantikak bate-ratuz, balirateke aise ehunez goiti; batzuk arras ederrak, Lafittek dioenez Elizan-buru edo Ibarrartenei zorrik gabekoak; bertze batzuk pollitak, errexak; denak sentimenduz beteak, euskara argi goxo batean paratuak.

Lan horiek guziak euskaldungoari eraxikiak ziren. Batek galda dezake, zerk sustatzen zuen Jean Barbier sail horietan guzietan sartzerat eta buru-beharri lanari jarraikitzerat? Horretaz asko erran izan da: «odolean zuela», «jitea halakoa», «pausu-lan» eta bertze. Funtsean, zertako ez? Bakoitzak gure gustuak eta beharrak baditugu.



Jeanne Marie Zubiria (1898-1975) Barbier erretoreak formatu neska gazteetarik bat. Eskola giristinoan irakasle lanbidez eta botuz ezkondegabea osoki elizaren zerbitzuko egoteagatik. Barbieren idazkaria izan zen


Baina irakur ezazue *Supazter xokoan* liburuari berak eman zion aitzin-solasa, eta han agertuko zaizue bertzerik. Hona hemen zenbait lerro bertze batzuen artetik:

Eskualdunak beti ongi etorri egin dio arrotzari, arrotz hura bere lerroño hartan eta behar den neurria baino barnago sartu gabe agertu zaiolarik... Ordean, batzu heldu zauzku, Eskual Herriaz osoki jabe-

tu beharrez, aleman higuina tenore batz Frantzia iparrean bezala... Eskualdun etxeko jaunak, ohar zakizkote sator-lan izigarriari edo bertzenaz, betitik eskualdunik baizen ikusi ez den tokietan ez da arrotzik baizik ikusiko! Non diteke orduan Eskual Herria, non eskualdunak, arrotz heien guzien erdian? Gogor egiozue Satorrari!... Lehenagoko mendeetan erro-mano eta bertze, oro iragaiterat utzi ditugun bezala, utz iragaiterat oraiko kabaleria [...] hori eta hortakotz eskualdun egon beti, beti eta gehiago eskualdun.

Euskal Herriaz, Barbier, handizki grina-tua eta minberatua zegoen beraz. Ikusten zituen arrotzak denetaz jabetzen ari. Gure ohiturak, euskara, fedea larre joaki, kanpoko haizeek zimeldurik. Orduan, gure arima ez saltzekotan, gogor egiteko ordua zela zeukan, berantegi ez bazen. Eta berak, bere neurrian, ahal bezala, lumaz bederen, nahi zuen parte hartu egiazko euskaldunen iratzartze batean.

Horra bihotz handi horren xede handia, Garaziko seme batek joan den mendean oihukatu diguna eta XXI. mende hastapen honetan ere egundaino bezain beharrezkoa dukegun erakaspena.



Gure Herria aldizkariaren estalia. Agerkari hori isildua zen 1976az gero eta haren orhoitzapenez «Gure Herria» izena hartu zuen Senpereko abertzale taldeak, 1989an, hauteskundeetarat aurkezteko

BARBIEREN EKARPEN GARRANTZITSUA *GURE HERRIARI*

Aldizkari honek gure Historiaren bilakuntza guziz baliosa egin zuen; 1921etik 1939rat eta gero 1950etik 1976rako urteetan agertu zen. Jakin behar da agerkari honen sortzaileetan lehenetarik izan zela Jean Barbier ez errateko lehena. Senpereko apezetxean hautatu zuten izena ere! Ikus «Otsobi»ren artikulua, *Oxobi*, *Gure Herria*, 1924, 327. orr.

GURE HERRIAN AGERTUAK			
Urtea	Titulua (<i>erdarazkoak italikoz</i>)	Zein sailetakoa	Orrialdeak
1921 ⁽¹⁾	Baigurako aingerua Piarresen galtzak Ameriketako Anaieri Itsas gainetik Mutiko zozoaren ixtorioa ⁽³⁾ Umexurtx gaztea <i>La mort de la Paysanne</i> <i>St Sauveur d'Iraty</i> ⁽⁴⁾ <i>St Sauveur d'Iraty: Chaindia</i> Gauden eskualdun ⁽⁵⁾ Xintximariak Jesus Jauna eta Jondoni Petri Gure Aitaxo	Ixtorio «Supazter Xokoan» ⁽²⁾ Bertso «Ixtorio-Mixterio» ⁽²⁾ — Ixtorio «Ixtorio-Mixterio» ⁽²⁾ — Antzerki «Supazter Xokoan» ⁽²⁾ «Ixtorio-Mixterio» ⁽²⁾ Bertso	23-25 78-81 89-91 109-114 176-177 288-290 338-349 425-429 547-557 618-621 663-666 670-672
1922 ⁽⁶⁾	Iretsi hortzak Sorginak — Haxko eta haren bi lagunak — Ezkila xarmatua Zubietako debrua Jesus Jauna eta Jondoni Petri Verdun-eko irrintzina	«Supazter Xokoan» ⁽²⁾ Antzerki — «Ixtorio-Mixterio» ⁽²⁾ — «Supazter Xokoan» ⁽²⁾ Antzerki «Ixtorio-Mixterio» ⁽²⁾ Gerlakoaki	18-21 67-73 139-148 216-219 238-263 566-569 613-630 652-655 702-703
1923 ⁽⁷⁾	Bederatzigarren astoa Tori drago bat Erran zahar, erran zuhur Erregea tupina eta xistua Mixel Garikoitz dohatsuari Xoane eta Xaneta Misioneak Senperen (1868) <i>Erratum</i> Jesus Jauna eta Jondoni Petri Larrondo guardaren kurutzea Laminak Anpallatzerat Martin?	«Supazter Xokoan» ⁽²⁾ — Atsotitz «Ixtorio-Mixterio» ⁽²⁾ Kantika eta musika «Supazter Xokoan» ⁽²⁾ Kantu zahar Musika zuzenketa «Ixtorio-Mixterio» ⁽²⁾ «Supazter Xokoan» ⁽²⁾ «Ixtorio-Mixterio» ⁽²⁾ «Supazter Xokoan» ⁽²⁾	23-26 74-77 137-139 210-216 278-279 305-308 365-367 368 431-434 481-484 558-563 606-608

(1) Bertzalde urte horretan bilduak, 24 kantu zahar, «Nehor eta Christophe Dufau» izenpetuak edo sinadura pean.

(2) Izen bereko liburuan ere bildumatua. *Légendes du Pays Basque* izenekoan ere zenbait berriz agertzen dira.

(3) M.R. senpertarrarengandik bildua.

(4) *Processions, pèlerinages, légendes...*

(5) «Nehor» izenpetua.

(6) Bertzalde urte horretan bilduak, 24 kantu zahar, «Nehor eta Christophe Dufau» izenpetuak.

(7) Urte horretan hasiko du Larreguy jaunaren «Testamendu Zaharreko eta Berriko Historia» argitaratzen. Lan horretan segituko du 1924, 1925 eta 1926an baina ez du bururatzen ahalko.

.../...

GURE HERRIAN AGERTUAK (segida)			
Urtea	Titulua (<i>erdarazkoak italikoz</i>)	Zein sailetakoa	Orrialdeak
1923 (segida)	<i>La tragique partie de pelote</i> ⁽⁸⁾ Jesus Jauna eta Jondoni Petri Soldado galdueri Eguberriko kondaira ⁽⁹⁾ Eguberriko kantu zaharra	Ixtorio «Ixtorio-Mixerio» ⁽²⁾ Olerki, hilen hilabeteen «Supazter Xokoan» ⁽²⁾ Kantu zahar	627-631 666-668 675-676 713-717 717-718
1924 ⁽¹⁰⁾	Hiru Errege Magoak Kauserak edo kruspetak ⁽¹¹⁾ Laminak eta Atsoa Eguberriko kantika Pello zapataina Botua botu Adixkide maiteak, huna Getaria Ihes lekua Apez sekulako Hori liburutxo pollita «Lohilakat» Gure Herria Gure! Laminak: Dominixtekum Gazte eskualduneri Gure Haurrak Gure! Eskualdunak Egitptoan Xilintxa sorgina ⁽¹²⁾	Kantika musikarekin Antzerki Laminak Kantika «Supazter Xokoan» ⁽²⁾ — Bertso — Kantika Elurmendiren liburuaz «Supazter Xokoan» ⁽²⁾ Bertsoak «Ixtorio-Mixerio» ⁽²⁾ Bertso eta musika — «Supazter Xokoan» ⁽²⁾ Antzerki	45-46 68-79 108-117 195-199 207-209 268-271 331-332 386-387 439 450-452 477-481 517-520 644-648 700-702 702-704 769-772 717-729
1925 ⁽¹³⁾	Kontzientzia eta bertza Oskixeko patarrean Laminak Bi makila bidean Jesus Jauna eta Jondoni Petri <i>Les «Laminak»</i> Meza bat bortuan <i>Trois légendes sur Axular</i> Axularren itzala Eskualdun Hil herriak Hil mezua	«Supazter Xokoan» ⁽²⁾ — «Ixtorio-Mixerio» ⁽²⁾ «Supazter Xokoan» ⁽²⁾ «Ixtorio-Mixerio» ⁽²⁾ (Itzulpena) Bertsoak Ahuzkin «Ixtorio-Mixerio» ⁽²⁾ Bertso Omiasainduko kantika «Supazter Xokoan» ⁽²⁾	22-25 63-69 144-150 204-209 325-331 350-354 452-453 526-539 617-618 671-673 691-695

(8) «Nehor» izenpetua.

(9) «Haurmaite» izenpetua.

(10) Bertzalde urte horretan argitaratuak hogeit bat kantu zahar, «Nehor» (Jean Barbier), Christophe Dufau eta Aita Donostiaren izenez sinatuak.

(11) «Nehor» izenpetua.

(12) «Haurmaite» izenpetua.

(13) Bertzalde kantu zahar andana bat Christophe Dufaurekin batean landuak.

GURE HERRIAN AGERTUAK (segida)			
Urtea	Titulua (<i>erdarazkoak italikoz</i>)	Zein sailetakoa	Orrialdeak
1926 ⁽¹⁴⁾	Aintzin solasa	«Supazter Xokoan» ⁽²⁾	20-24
	Jesus Jauna eta Jondoni Petri	«Ixtorio-Mixerio» ⁽²⁾	182-192
	<i>L'abbé Charles Bécas</i>	Apezgaiei hitzaldi	279-291
	—	—	321-329
	—	—	418-430
	Ahetzak mahasti aitzurren	«Supazter Xokoan» ⁽²⁾	458-462
	<i>L'abbé Charles Bécas</i>	Apezgaiei hitzaldi	472-482
	Larresoro - Uztaritze	Apezgai ikastexeari bertsoak	589-591
1931 ⁽¹⁵⁾	Haurrik ez! ⁽¹⁶⁾	Antzerki	3-17
	—	—	121-131
	—	—	289-303
	—	—	485-502
1970	Antxitxarburuko buhamiak	(Hil ondoan agertuak)	33-42
	—	—	99-108
	—	—	182-187
1975	Beha zadazu Jesus	(Hil ondoan agertuak)	314
	O Jondoni Petri	—	318
	Armadaren Jainkoa	—	328

(14) Bertzalde kantu xahar andana bat Christophe Dufaurekin batean landuak.
 (15) 1928, 1929 eta 1930 urteetan ez zuen deusik idatzi *Gure Herrian*.
 (16) 1931ko azaro-abenduko zenbakiak dakar «Haurrik ez!» antzerkiaren azken zatia M.A.B. sinadurarekin. Zenbaki berean dago ere Jules Moulier «Otsobi»k egin zion hil ondoko omenaldia.



KANTIKAK			
Kantikak liburuan agertuak, 1948an			Paper laxoetan daudenak
Titulua	Zenbakia	Orrialdea	
Maite zaitut zeruetan	69	83	Zuri hurbil Jainko ona
Jainkoak egin nau eskualduna	78	96	Zu zare Jesus
Aldare gainean, ostia xurian	80	100	Apezak egitzu
Hemeretzi mende hautan	83	103	Lau mila urte hartan
Amodioz sutan dagon bihotzak	120	150	Jesusen bihotz eztea
O Jesusen bihotz maitagarria	126	158	Zeru-lurren Errege Jauna
Kristo Erregeri	130	162	Santa Terexa Lisieux-koa
Agur Ama urrikalmenduzkoa	166	208	Eskualdunek maite zaitugu Joana
Birjina Maria, Ama maitea	197	242	Munduko gauza ederrena
Betlemeko establian	223	274	Amaren besoetan oi Jesus
Kamelutan oraintxet	251	307	Oi Maria, Ama maitea
Ortzirale Sainduz	261	323	Zerutik beha zaguzu
Oi Migel Dohatsua	293	364	Gora Ama ona!
			Gure Amaren oinetan

eta bada bertzerik ere...



2007. Kantu Xaharraren eguna Senpere Oxtikenean; urteko gomita berezia:
Jean Mixel Bedaxagar xuberotar kantari famatua

BARBIEREN BERTZE IDAZKI LAN GARRANTZITSUENAK			
Noiz	Titulua (<i>erdarazkoak italikoz</i>)	Aldizkariak ⁽¹⁾ / Liburuak	Zenbakia
1895	<i>Le roi des bobémiens d'Antchitcharburu</i>	⁽²⁾	
1898	Irrintzina bat mendian	Baskonia	178
1900	Galerna mendian	Eskualduna	693
1904	Gure untzia	Pays Basque	283
1908	Gure Amaxo (Oilarra kukuruka)	Eskualduna	1089
1910	«NERE KANTUAK» Nere makila Itsas arraintzalea Gu ez eskualdunak? Bi esposeri espos egunean Garazin gaindi Traidorea	1. Liburua Eskualduna — — — — —	1208 1209 1210 1213 1214 1215
1912	Larrazkena Sor lekuari	Eskualduna —	1234 1311
1913	Jaungoikoari	Eskualduna	1347
1917	Gerlako xakurra Negua	Eskualduna Baskonia	1554 848
1919	Biba biba Frantzia ⁽⁴⁾	Eskualduna	1697
1920	«AMA BIRJINA LURDEN» Gerla Handiko kantuak	2. Liburua (Paper laxoan)	
1924	Gure Herria	Argia	11
1925	<i>Axular et les sorcières</i>	Ele zahar	
1926	«PIARRES» «SUPAZTER XOKOAN»	3. Liburua (1.parte) 4. Liburua	
1929	«IXTORIO MIXTERIO» «PIARRES» Harpeko gizonari	5. Liburua (bi hizkuntzetan) 6. Liburua (2.parte) Eskualduna	1734
1931	«LÉGENDES DU PAYS BASQUE»	7. Liburua (bi hizkuntzetan)	
1933	Lanhoen erditik 'Orhi' zen jalitzen	Yakintza	5
1942	Gure bandera ⁽³⁾	Aintzina	2
1943	Mattin erreستا Supazter xokoa neguan	Aintzina —	4 4
1968	Eskualdun soldadoa Semenario maitea, zureak gare oro	Herria (?)	953 (?)

(1) Artikulu, bertso edo idazki hauetarik zenbait bertze aldizkari eta kazeta batzuetan ere publikatuak izanak dira; ikus: *Egan*, *Gure Almanaka*, *RIEB*, *Ikas*, *Euskaria*, *Euskal Erria*, *Yakintza*, *Euskadi*, *Aintzina*, *Baskonia*, *Sustraita*, *Pays Basque*...

(2) Erdarazko lan hau galdu bide zen. Ikus euskarazkoa Piarres Lafittek argitaratua *Gure Herrian* 1970ean.

(3) «Nehor» eta Christophe Dufau izenpetua da.

Gure Amaxo*

Oilarra kukuruka etxean da ari,
Jadanikan Amaxo otoitzez Jaunari;
Bi eskuak ikaran so Kurutzeari,
«Jaunak beha diezon egun berriari!»

Atxo zinez pollita da gure Amatto,
Xahar izana gatik ez oraino ttontto.
Diruz balinbad'ere poxi bat pobretto,
Omor'onez bederen dago aberastto.

Igandetan ederrik iduri panpina,
Zinez erran liteke: «Horra Erregina!»
Begia irriz dago halaber ezpaina:
Oi, zer atxo pollita Jainkoak egina.

Buru sahetsetikan motto-buztanduna,
Lepo gibelaldean mokanes urddina,
Balenarik gabeko soineko fin-fina,
Zaiatto bat pollita eskuez egina.

Meza-deia burrunban, eliza dorretik,
Eta Amaxo johan landa bazterretik;
Buruaren zaintzeko iguzki gaixtotik,
Kaputxina pleguan eman du burutik.

Arto bizardun perde, sorhopil gizenak,
Sagar hori'ta gorri, mahasti aihenak,

Amaxo gaixoari irriz daude denak
Segurki bide dira adixkide minak!

«Intzaur, piko, gaztainak, zirezte handitu,
Zuen landatzailea da aldiz xahartu;
Ainitz neguetako elurra gelditu,
Eta ile urdinak zeraizko xuritu.»

Huna ur-xirripa bat intzirez doana,
Gain hartako zerua bezainbat urdina:
Lehenago jauzian igaiten zuena...
Orai doi-doi emanez harri xabalduna!

«Agur, Amatto, agur! - Agur ene haurra!»
Bidean orok hari bihotzez agurra.
Amaxo erreposki, ez dadien lerra,
Xafla-xafla badoa xendrari behera.

Herrirat heldu eta zaia du zafratzen,
Zapeteri errautsa eskuaz xahatzen,
Kaputxina burutik laster behekitzen,
Eta ixil-ixila elizan da sartzen.

Zer otoitzak orduan Aita Jainkoari!
Aingeruak barrandan xahar maiteari.
Bertze guziak kantuz errepikan ari...
Atxo ona mezuka Ama-Birjinari.


* Bertso hauek sariztatuak izan ziren, Buenos-Aires-eko «Euskaria» lehiaketan, 1906ko azaroan. Kantu hau dukegu, beharbada, Barbieren lanik ezagutuena; Iparralde guzian abestua eta Hegoaldean ere arrakasta izan baitu. Bertze asko aldizkaritan eta bazuetan behin baino gehiagotan argitaratua izana da.

Hilen herri xokoan meztatik lekora,
 Amatto nigarretan otoitzez hobira;
 Loretto bat harturik lurretik eskura,
 Ixil eta trixte da itzultzen herrira.

Ilun zeinuetako etxerat heltzean,
 Gozo handi bat zuen amak bihotzean;


Gaztaina adar beltzek hura aditzean,
 Gau on! zioten orok betan apaltzean.

Oi Amaxo maitea agian luzako
 Jainko Jaun onak zaitu gurekin utziko!
 Ainitz urtez, agian, zaitu ahantziko!
 Luzaz agian luzaz gaituzu, zainduko!



1924. *Supazter Xokoan*
 liburuaren estalia

1924. *Supazter Xokoan* liburuaren eskaintza: «J.M.» (Jeanne Marie). J'aurais voulu qu'il fût beaucoup plus beau, pour mieux reconnaître votre dévouement inlassable... Mais, je vous l'offre de si bon coeur! St Pée, 11 février 1926, en la fête de Notre Dame de Lourdes. J.Barbier Prêtre. À ma si dévouée secrétaire.» Gure itzulpena: «Nahiko nuen askoz ere ederragoa izan balitz zure laguntza nekaezina eskertzeko... Baina hain bihotz onez eskaintzen dizut! Senperen, 1926ko otsailaren 11n, Lurdeko Andrearena Mariaren festa egunean. J.Barbier apezka. Ene idazkari zintzoari.»



Kristo Erregeri Agur!*

Kristo Erregeri Eskualdunek Agur!

Kristo Erregeri Agur, Agur! (berriz)

Itsaso, mendiak, ibai, zelaiak,
Zuretzat eginak, dira zureak,
Ureko uhainek
Mendiko oihanek
«Kristo, agur!»

Airean doatzin xori ederrek,
Lurreko ihizi handi azkarrek,
Pentzeko loreek,
Zeruko izarrek:
«Kristo, agur!»

Aingeru guzien Errege Jauna,
Errege're zira Gizonarena;
Nun da erregerik,
Zu bezalakorik?
«Kristo, agur!»

Erregen Errege hola zirena,
Nola ote zira atze egina
Zuhauren etxean,
Zure erresuman?
«Kristo, agur!»

Tokiz toki zira herrestatua,
Mihi guzietan laidostatua!
Ororen Errege,
Trufatzen zaituzte!
«Kristo, agur!»

Orotarik kanpo emana zira...
Zato gurekilan Eskual-Herrira!
Zure gira oro,
Orai eta gero
«Kristo, agur!»

Lur hau oro zuri kendurik ere,
Zerua gelditzen zautzu halere
Zeru hortarat gu,
Helaraz gaitzazu
«Kristo, agur!»

* Oraino irakasle edo bikario zelarik egin kantika baina geroztik osatua. Hau da, menturaz, Barbieren elizakoetan maitatuena euskal kristauen artean oraino ere abesten duguna.



Euskal Herriaren maitalea, itsutuki

1931. *Légendes Basques*: Jean Barbier-
Illustrations: P. Tillac. Liburu guziz
arrakastatsua, bi hizkuntzetan paratua


Euskal Herria eta euskara hainbertzeraino maitatu eta zerbitzatu dituenaz gero, batek galdegin dezake zertako Barbier abertzaleen lerroetarik baztertzzen duten?

Egia da Frantziaren eta frantsesen aldeko bertsoak ondu dituela, bereziki 1914-1918ko gerla izigarri haren garaian edo ondotik. Baina gizon baten bizia-ri behatzerakoan ez ote genuke lehenik haren denborako ingurugiroaz jabetu behar?

Ikus ditzagun xifre bakar batzuk giro hartaz nolabait jabetzen lagun gaitzaten. Senperen, orduan, orotarar 2.500 jen-

de ez arras. Horietarik 400 gizon gazte, osasuntsu, joan ziren 1914an surat. 72 han hil ziren (%18) jaun bikarioa bertzalde. Zazpi etxetan bi hil izan ziren eta batean hiru! Bertzalde 200 kolpatu (%50) eta horietan zenbait hilen direnak geroago han bildu zauri edo eritasunen ondorioz.

Joan zirela gerlarat? Zer egin zezaketen bertzerik: denek ihes egin mugaz bertzalderat, muga hain hurbil zutelarik zenbaitek, kasik ate-aitzinean batzuek, baina karlistak alemanen alde baziren ba ote zen haientzat han lekurik? Serios izan gaitzen: ihes egin dutenak osoki onargarriak



Eliza barneko orhoitarria, geroztik kendua. Gerlan hilen izenak (73) dakartza euskara huts-hutsean. Gainean: «Senpereko gerla handian [hil diren] senpertar soldadoeri». Beheraxago berriz: «Bizia eman zinduten Herriari, arima Jainkoari»

bazaizkigu gaur, ordu haietan jendeak, Frantzian, Britainia Handian ala Euskal Herrian, eginbidetzat zeukan alemanen kontra gudukatzea, hainbertzetaraino non senpertar batek erran izan baitio Barbieri, bere etxeko soldadu zen batentzat, nahia-go zuela hila ikusi ezen ez eta ihes joana mugaz bertzalderat...

Eta lau urteko sarraski nehoiz ikusi ez bezalako haren ondotik, hainbertze euskal familien dolumin izigarri haiek hurbildik bizi izan ondoan, 1918ko azaroaren 11an garaipenaren berria zabal-tzearekin, bozkalentzia zoragarri hura zapartatu zelarik bazter guzietarat, Barbier-k, hain errexki olerkari zenak eta, beharbada sentiberatasun handiegikoak, zer egin zezakeen, sor eta gor egon?

Aldiz zein hunkigarri zaigun jakitea, gerlan senpertar bat hil arau, Senpereko au-zapezak Paxkal Lahetjuzanek laguntzeko galdeginik Jean Barbier erretorea eta biak joaki zirela etxeatarat, hil-berriaren eramaterat, oinez gehienetan, jendeak urrun-dik segitzen zituela zein etxetan geldituko ziren ikusteko, jakin beharrez nortzuk ote ziren zorigaitz pean berriz ere: ondoko

etxeko ahaide bat, berdin? Eta etxe batzuetarat bigarren hil-berria eramán behar zelarik? Eta batean hirugarrenarena? Zinez ba ote da gure artean bihoztun bat, egoera hori gogora dezakeenik muinetaraino inarrosia izan gabe?

Ikus dezagun beraz Jean Barbier hain bihotz handikoa, soldadoen familien, hilen etxekoen sustengatzaile jendetasun handiz, baina zendua 56 urtetan, errautsia, egun luzeak eta gau asko Jainkoarentzat eta hain maite zuen Euskal Herriaren alderako lanetan emanik. Irakur ditzagun orain, goraxago aipatu dugun *Supazter xokoan* deitu liburuan ezarri zuen aitzin solasaren ondotik, zenbait bertso eta ikasiko dugu hor euskaldunari euskal lurra erosi nahi dion arrotz fran-

tximénta, *etsaia* dela, *sarde* eta *zakurren* mehatxupear Euskal Herritik haizatu behar dena! Eta sardean ez badu *sartzen* delako arrotz ausarta, pentsa dezakegu kristautasunak eman ziola olerkari suetsuaren lumari arrasta...

Gure artean badateke erranen duenik, solas bortitz horiek salbaikeriak direla... Ordea, gaurko jende ontsa ikasiaren estalki leun horren azpian, gure uzkurtasuna eta bereziki diruaren erakargarritasuna balira polliki gordeak?

Euskal Herria ez da salgai: baina ba ote da gaur olerkari abertzalerik Barbier baino urrunago doanik idatzizkoetan eta egun argiz, haren denboratik alta, egoera makurtu delarik eta ez guti?





Senpereko eliza barne ederra 1960 inguruan. Argazki honetaz geroztik ezkerreko prediku lekua eta eskuineko herriko auzapez-axuanten aulkia, bai eta konfesionalak kenduak izan dira

Gure Herria... Gure!*

Alor handian, aita, belarren metatzen
Arratsalde erditan deskantsuz ari zen.
Berro xokotik haurrek zioten behatzen...
Eta bere lanean aita zen xoratzen.

Ixtantean haurño hek dira etxerako
Orga belar gainean dura hupatuko
Beren buru maiteak dituzte kurtuko,
Heian karrankaz orga delarik sartuko.

Anartean beraz han bere alorrean
Burdin sardi xorrotxa tinki ahurrean
Harat hunat badabil iguzki beroan
Iguzki beroari behatu gabea.

Hatsantua hor noizbeit behar du gelditu;
Bere esku zainartak kurutzatu ditu;
Sardi gider gainean pixka bat da kurtu,
Gozoki bazterrerri diote behatu.

Hara, han nonbeit, urrun, mendi ederrenak,
Haize hegoak hurbil [e]zartzen dituenak;
Hara aldiz beltz-beltza, herriko oihanak,
Hariztegiak eta pagodi ilunak.

Hurbilago huna hor ohiko ibarra,
Ur hegia salatuz doan zur-xuria;
Horra xuri-xuria Eliz-hil-herria,
Jainkoaren gerizan lerroka [e]zarria.

Beraren erresuma horra nun den hasten,
Huna bere artoak non diren luzatzen,
Huna ogi garia non den urreztatzen,
Haizeak farra-farra duela harrotzen.

Aitaxok lehenago landatu aihena,
Aztaparka badoa iguzkira dena.
A zer etxe-arnoa emaiten duena,
Hil bat bere hobian ber-pitz lezakena.

Bainan hortxet bet betan landa
bazterrean,
Nor da hola agertzen hor *gure lur*rean?
Nongo atrebitua gure alorrean,
Orori beha dago begi ozarrean?

Behatze hortaz gauzak oro gaitzituak,
Iduri du direla betan mudatuak...
Lehengo eskualdunak *hemen higu*atuak,
Lur mokor bakotxetik hor [di]tut
altxatuak.

Gure aita heldu zen begia ilunik...
«Zer behar duzu jauna hemen gure
ganik?
Zer nahi duzu hola hiritikan jinik?
Ez dakit... bainan jada higuaintzen zaitut
nik!»

* Bertso hauek 1924ko abuztuan idatzi zituen Barbier-k eta ondoko irailean *Gure Herria*-n argitaratu zituzten. Baina 1929an, *Piarres*-en bigarren tomoan berriz ezarri zituen, hain xuxen horiekin bururatzen zuela bere eleberri handia. Kantu hauek beraz, Barbieren testamentu bat bezala har ditzakegu.

«Zer dirutan dautazu etxea salduen
Nahi duzun guzia dautzut ordainduen.
Jauregi bat ederra dugu altxaturen,
Eta kolpe berean zu aberasturen...»

Ikara daldaretan aita emana zen,
Begiak zitzaizkola biraka jalitzen...
Bere burdin sardia bi eskuz du hartzen
Doi-doiak egiten du ez baitio sartzen!

«Zalu joanen zaizkit zuhurra bazare,
Bertzenaz erroz-gora gizon hil bat zare!...
Zure diru zikina atxikazu zure,
Bainan utziren duzu *Gur'Herria, gure!*»

Zuri-zuria huna gure hiritarra
Haia-haia doala landari behera...
Haren ondotik aldiz han harat mugara...
Sainga-ta sainga zoan etxeko xakurra!...

Gure *etxeen* orde *jauregiak* egin!...
Eta guk gure haurrak haziko zerekin?
Herria utzi behar herriko lurrekin,
Han hirian hiltzeko gosetearekin!

Sainga zak hor bai sainga etxeko xakurra!
Jende hoik erematzak Herriko mugara
Gure etsaiak dituk segitzak han hara!
Gur'haurrek behar ditek gur'herriko lurra.

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak, liburuxka hau egiteko jasotako laguntzagarik, eskerrak eman nahi dizkie:

- Xipri Arbelbideri
- Beñat Amestoyri
- Piarres Lafitteri (1901-1985)

Zuzendaritza:	Mikel Atxaga
Argitaraldia:	1.a, 2009ko ekaina
Ale-kopurua:	2.300
©	Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa Kultura Saila
Argitaratzailea:	Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco Donostia-San Sebastián, 1 - 01010 Vitoria-Gasteiz
Argazkilaria:	Edorta Sanz
Fotokonposizioa:	Ipar, S. Coop. Zurbaran, 2-4 - 48007 Bilbao
Inprimaketa:	Grafo, S.A. Avd. Cervantes, 51 - 48970 Basauri (Bizkaia)
ISBN:	978-84-457-2966-3 (Lan osoarena) 978-84-457-2970-0
L.G.:	BI - 1701-09



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística